

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Maria Solana hezkuntza kontseilaria Uharteko ikastetxeko industria-nabe berria ezagutzen izan da

Hezkuntza departamentuak milioi 1 eurotik gora inbertitu du lanbide heziketa zentroko azpiegitura hobetzek proiektuan

Astelehena, 2018.eko otsailak 5

Hezkuntza departamentuak 1.080.975,26 euro inbertitu ditu Uharteko lanbide heziketa ikastetxeko lanetan. Eraikinaren bigarren solairua eraberritu da eta automozio-nabe berria eraiki. Maria Solana kontseilaria bertan izan da gaur bisitan, Alfredo Arruiz alkatearekin; ikastetxeko zuzendari Antoni Lorak egin ditu gida-lanak.

Bisitan egindako azpiegitura berriak ikusi eta lanak nola geratu diren ikuskatzeko aukera izan dute gaur Hezkuntza departamentuko ordezkariak. Izan ere, kontseilariarekin batera, ikastetxeko zuzendari Antonio Lorak gidatu ditu Azpiegitura Zerbitzu-buru Eneko Ardaiz eta Lanbide Heziketa Zerbitzu-buru Esther Monterrubio, Uharteko alkate Alfredo Arruizekin batera. Oinarrikoz lanbide heziketaren erreferentziako zentro bilakatu den Uharteko ikastetxean eraikinaren bigarren solairua eraberritu da, informatika eta merkataritza tailerrak hartzen dituen 645 metroko koadroko solairua, eta ibilgailuetarako bi lan-lerro hartu dituen nabe berria eraiki da, oinarriko lanbide heziketako ikasleentzat.

Lanbide heziketarekin, oro har, eta “motibazio estra behar duten ikasleak hezkuntza sistematik kanpo gera ez daitezten” Departamentuak duen konpromisoa azpimarratu du Solana kontseilariak. “Lan merkatura iristen direnean hain beharrezkoak izango dituzten formazioa garatzen lagunduko dien bide hori lantzea ezinbestekoa da eta Uharteko institutuak, ildo horretan, berebiziko garrantzia duen lana egiten du oinarriko lanbide heziketako ikasleekin”, gehitu du kontseilariak. Ikastetxeko zuzendari Antonio Lorak, bestalde, esan du “DBHn zailtasuna handiak izan dituzten eta beste ibilbide akademiko eta profesionala hasten duten ikasleekin institutuak egiten duen lana babesteko dira gauzatutako lanak”. “Ikastetxeko irakasleen inplikazioa” ere goraiatu du Lorak, eta eskertu



Solana sailburua bere departamentuko eta institutuko zuzendaritza-taldearekin, eta Uharteko alkate, Alfredo Arruizekin..

egin die “obretan izan diren hilabeteetan ardura akademikoari eusteko egin duten ahalegina”. Azkenik, ibilgailuak automozio nabe berrira sar daitezten Uharteko Udalarekin izandako konponbidea bilatzeko elkarlana eskertu du.

Automobilen tailer elektromekaniko berria ezarri da 850 metro koadroko eraikin berrian, hain zuzen ere, eskari gehien duen formazio ikastaroa. Gainera eraikinaren segurtasun eta efizientzia energetikoaren gainean lan garrantzitsuak egin dira. Proiektuari 2016ko maiatzean ekin zitzaion; bigarren solairuaren zaharberritzea 2016ko ekainean hasi zen eta nabe berriaren eraikitzea, berriz, 2017ko urtarriletik abendura bitartean egin da. Modu horretara, instalazio berriekin ekin dio ikasturteari Uharteko LHik.

Uharteko LHik 244 ikasle ditu, sei heziketa lerroetan: 55 sukaldean eta ostalaritzan; 36, eraikuntzan eta muntaian; 32, erdiko mailako instalazio eta mantentze graduan; 30, bulegoko informatikan, 48, automobilen mantenuan; 27, merkataritza eta marketingean. Horrez gainera, egokitutako curriculum planean 9 ikasle ditu eta beste 7 hizkuntza murgiltze planean. Gaur egun, Uharteko LHI oinarrizko hezkuntza heziketan erreferentziazko ikastetxea da, bere eskaintzaren baitan hain motibatuta ez dauden ikasleei erakargarria izango zaien formazioa eskaintzen die, metodologia aktiboak bitartez ikasleek lan-merkatuaren eskaerei modu egokienean erantzuteko abileziak edo lanbide heziketako ikasketetan aurrera egiteko gakoak gara ditzaten.

Hezkuntza integratzailea

Uharte LHik hezkuntza integratzaile moduan ulertzen du lanbide heziketa, gaitasun pertsonalak eta sozialak lantzearekin batera, hainbat diziplinetan formazio teknikoaren garatzea du oinarri. Horregatik, gaitasun horiek indartzeko bidean, eskolaz kanpoko ekintzak eskaintzen esfortzu berezia egiten du. Aurten, adibidez, emozioen lanketari garrantzi handia eman diete eta Esperantzaren Telefonoaren jardunaldi batzuetan bideo baten sorrerarekin parte hartu dute ikasleek; era berean, aktiboki parte hartu dute “Artearekin hazi” proiektuan, eta “El Pera”ren esperientziak ezagutu dituzte nahiz Joan Pahisaren eskutik baikortasuna, eguneroko borroka eta ausardiaren inguruko oinarriak jaso dituzte. Gainera Merece la Pena fundazioaren aurkezpenean parte hartu dute, eraso sexisten aurkako eguna antolatu dute. Sukaldaritza eta Ostalaritza zikloko ikasleek catering zerbitzuak ere eskaini izan dituzte ikastetxetik kanpo eta Donejakue bideko etapa bat egitera ere animatu ziren.

Azkenik, nabarmentzekoa da nazioarteko mugikortasun proiektuetan izandako parte hartzea, 7 ikasle Italia, Portugal, Erresuma Batuan izan ziren iaz eta aurten 9 ikasle joango dira atzerrira.

Formazio eskaintza

Merkataritza eta Marketing familia: Oinarrizko LG Merkataritza Zerbitzuetan.


Ostalaritza eta Turismoa familia: Oinarrizko LH Sukaldaritzan eta Errestaurazioan (2 lerro).

Informatika eta Komunikazioak familia: Oinarrizko LH Informatika Bulegoetan.

Garraioa eta Ibilgailuen mantenua: Oinarrizko LH Ibilgailuen mantenuan (2 lerro).

Fabrikatze eta Muntaia: Oinarrizko LH Fabrikazioan eta Muntaian (2 lerro).

Instalazio eta Mantenua familia: Erdi mailako Teknikara Elektromekanika mantenuan.



Institutuko tailer batetara bisita.